

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatuaren barruan bi bezero mota bereiziko liratezke:

Alde batetik **maskota zaintzearen truke etxea uzten dutenak** ditugu. 30-65 urte bitartekoa betiere etxea jabeak direnak noski. Geografikoki buruz, esan dezakegu Euskal Herri ingurukoak diren bezeroak bilatzen ditugula batik bat. Izan ere, hauekiko harreman estua eta zuzena komenigarria da. Gainera, Kanpoan denboraldiak egin ohi dituztenak dela lanagatik edo oporraldiengatik izango liratezke. Bestetik, maskota bat izatea derrigorrezkoa izango lukete, hura zaintzearen truke utziko baitiote norbaiti euren etxea. Honekin lotuta, euren animalienganako sentiberatasuna izatea eskatzen dugu, beste hitzetan, maskotak etxean ondo zainduta izan nahi izatea. Bukatzeko, hauek diruz ondo ibili beharko lukete, izan ere, bidaiaren kostatuez gain, guri 700 euro ordaindu beharko dizkigutelako.

Etxea uzten dutenek maskota osasuntsu izan behar dute, hori ziurtatzeko, aste bat aldeztetik aurretik albaitariarengana eraman beharko dute eta honek berrikuspen bat izan eta gero dena zuzen dagoela ziurtatzen duen txosten bat entregatuko beharko da.

Bukatzeko, autoa etxea zainduko duenari eskuragai lagatzea derrigorrezkoa zaie.

Beste aldetik, **maskota zainduko duten bezeroak** egongo dira. Hauek ez dute dirurik ordaindu behar. Dena den, 18 urtetik gorakoak izan beharko dira. Agian ikasketatan denboraldi jakin bat egin behar dutenak hiri batean, lana dela eta bete hiri batean bizi behar direnak denbora batez, ala besterik gabe, bidaiatzea gustuko dutenak eta axola dutenak non egokitu beti ere tokia bisitatzeko denbora badute. Noski, animaliekiko sentiberak eta hauek zaintzea gustukoa izan behar dute nahi eta nahiez, esperientzia badute hobeto. Honekin lotuta, animaliei dagokionez alergia-rik ez duela ziurtatzen duen osasun informe bat erakutsi beharko du.

Ekonomikoki esan daiteke ez dugula maila ekonomiko alturik eskatzen, izan ere, hala izango balitz hotel batean egokitzea izango litzateke zentzudunena. Dena den, badira zenbait pertsona nahiago dutenak aukera hau animaliak adoratzeari gain oso malguta baita.

Bestetik, maskotaren segurtasuna bermatzeko, profil arduratsu bat bilatzen dugu. Hau da, etxea garbi mantenduko duen bat, maskotaren egonkortasun maila altua mantenduko duena honen behar guztiak asetuz. Behar hauek janaria, higiena, eta jolasteko aukera dira.



Bukatzeko, autoa ere eskuragai izango duenez, honekiko erabilera zuzena eskatzen da, honek jasan ditzazkeen kalte guztiak berak ordaindu beharko dituelako.

Orohar esan daiteke etxea uzteko 30-60 urte bitarteko bezeroak bilatzen ditugula, eta animalia zaintzekoak berriz 18-60 urte bitartekoak bidaiatzea gustuko dutenak eta arduratsuak.